BATXITXU

(KONTU BARREGARRIJA)

Malabia Bizkai'ko efi txiki ta aratzean bixi zan Batxitxu gixon biafgin eta zoragafija Madrid'en eukan Batxitxu'k anaya gustiz aberatsa.

Bein baten Madrid'eko anai oni Batxitxu Isidor deunaren jayak igaroten beragana eruatia otu yakon. Pozik artu eban Batxitxu'k bere anayaren deya ta Madrid 'erako opaindu ta gertu zan.

卐 卐 卐

Batxitxu eldu zan Madrid'era, baña baseriiafen jazkijekaz: anayagana eldu zanian onek longain eta kapel-luziaz jantzi eban Batxitxu.

—Batxitxu, orain adizkidiak ikeftuten juan biaf yogu ta ta neuk esaten dodana egingo dok ¿e?

—Bai, bai; egon ardura barik, gusti -gustija egingo dot-eta.

Eskubetan makuak aftuta txaiderik txaide juan ziran adizkidiakana. Eta txaide efdi-efdijan bategaz agorik ago aufkitu zan.

—Buenos días.

—Buenos días (Batxitxu'k, be).

—¿Qué tal estás?

—¿Qué tal estás? (Batxitxu'k).

—¿Y la familia?

—¿Y la familia? (Batxitxu'k).

—Aquí le presento mi hermano que acaba de llegar de Malabia.

—Aquí le presento mi hermano que acaba de llegar de Malabia, Batxitxu'k.

Anaya lotsearen lotseaz urdala efetan leukan.

—¡Onelako kirtenik! Au dok lotsagafija liñuan bere kolkorako; onegaz ezin nok juan iñora, be. Ez, bafiro ez, az etofiko ona.

Adizkideakana-ta eruan barik Madrid 'eko txaidiak erakusten ibili zan Batxitxu'ren anaya.

Gaba elduta etxerantza eldu ziran ondo baño apariteko.

Apaldu dabe edefto, ta Batxitxu logura zanetz, bere anayari esan leutsan:

—Oera juan biafko yuat.

—Juan adi nai ba'dok, baña neuk deiu afte ez jagi gero ¿e?

—Ez, ez.

Erantzi, ogera saftu ta pufustadaka astia bat ixan zan; bein luaz gorputza asetu zanian Batxitxu itxaftu egin zan. Eta egon eta egon oyan gogait-egin leban.

—¡Onek dozak gabak! Onako zan luzerik etxagok Malabi aldian, ba. Madrid onelakua ba'dok ni ezin neikek emen bixi. Neure efija ikusten bafiro juan biafko juat.

Alako baten deiu dautso anayak ogetik jagiiteko.

Pozaren pozaz ogetik taupa-egin dau; jantzi dauz jazkijak eta anayagana junda aulan diñotso:

—¡Oneik, bai-dirala gau luziak!

—Emen onelakoxiak dozak gustijak.

—Ofetara ba'dok ni ezin neikek emen bixi, gogait-egiten yuat-eta.

—Gogait-egiten ba'dok zer egingo dauskat, ba, nik? Euk gura dokana egik.

—Ni Malabi'ra nayuak.

—Euk nai ba'dok juan adi, ba.

Gertu da Malabi'rako gure Batxitxu azkafa: aftu dau gabeukatza, longaña t. a.

Anayak lagundu leutsan Madrid'etik uften afte; anayari aguf-egin eta bai-datof Batxitxu Malabi'rantza.

卐 卐 卐

Bidian letofala Segovia'n gaba egin biaf ixan leban. Abegetxera eldu ta abegija eskatu leban, baña alpefik: nor ete-zan elekijelako ezetz esan leutsen.

—Etxian ezpada, etxaufian dozuben lafañeko lastopiluan lo-egiten itxi egidazube, ba.

—Ori bayetz erantzun leutsen: "Pero tenga cuidado con el "sereno".

Etzun da gure Batxitxu lasto ta galtzo bigun ganian. Eta bere bafura onan liñuan:

"Sereno" ori ze afayo ete-dok? Neure mako onegaz konponduko yuat, ba, iñor gabaz neure ondora ba'yatofk, ba.

Luak aftu dau geure Batxitxu, aul-auldurik legualako. Baña gaberdiruntz zaratatxo batzuk entzunaz Batxitxu itxaftu zan.

"Serenua" ixango ete-dok?

Ilunian ikuskixuna igiituten zala ikusijaz aftuten dau makua ta joten dau ikuskantza ta lufera bota leban.

—Serenuoi edo demoniñuoi il yuat, ba.

Baña goxa elduta jaubearen astua ixan zala ikusi eban eta atsekabearen atsekabeaz bere sakelak ordaindu biaf ixan eban.

卐 卐 卐

Biderik ziaf luala aunan liñarduban:

—Sereno ta demoñiño gustijak onexonek erloju onek ekaften jaustazak. Neuk maniauko aut oraintxe.

Esan eta egin, aftu gabeukatza ta jaufti afi baten aufka apuftu dau.

Aftu eskubetan eta ixildu zala ikusijaz, esan leban: ¡Au be ixildu yogu!

卐 卐 卐

Baña Madrid'etik etofiita Bakaldunaren afpegija ikusi barik juatia Malabi'ra eztok, ba, egokija sakelan daukadazan txindi gustijak emongo neukez, ba, Bakaldunaren afpegija ikustiafen.

Onelan eta ozta-ozta Valladolid'era eldu zan: abegetxe bafura saftuta ikasle pilo bat aufkiiu leban. Eta bere Bakaldun ikusgalia agertu leutsen. Aparija oroi ordainduten ba'dauskuzu lastef ikusiko dozu Bakaldunaren aufpegija.

—Bai, bai ordainduko dautzubet.

Saftu dira ikastiok txaki ilun baten: erantzi dabe, euren bat; eta atzekaldia leyafetik erakutsijaz kandela bat ixetu leben.

—Aof Bakaldunaren afpegija-ikasliak.

—Eta Batxitxu'k: —Esaten layuadan nik Bakaldunaren afpegija guria lakua etzala ixango: ofek agua gotik bera yok eta geuk ziaf--ziaf...

¡¡...!! Ja, ja, ja.

卐 卐 卐

Itz gatxak edo

Gabeukatza: erlojuba.

Longain.

Mako: bastón.

KIŘU.

ERRIJETATIK

EA

"IRAKURI MAFE".—Lengo egunian adizkide batek ekafi eustan idaztitxu au alai esanaz; "ara emen, geure irakaslia ixan zanak, umientzat idatzi dabena". Aftu neban eta irakuften asi nintzanian, ni bai poztu nintzala ikusirik neure lenengo irakasliak, Ea eta bertokuentzat gordeten daben gomuta ona. Bai Julene, zeuk diñozunez, ezingo zara aiztu geugaz, baña zeu be, ziuf egon, efitxu onetan ezagutu zendubezenan artian, bixiko zara, ba, batez be zeure ikaslan biotzetan.

Lau edo bost urte eukiko nebazan aizta bategaz bere ikastolara juaten asi nintzanian, eta gomutetan naiz beti gogo bixiz aufkitzen nintzala bertaratuteko, eta ni letxe beste gustijak; irakasle au gustiz mafekofa zan, eta mafe gendun ikasla gustijok. Esan leike giltzak daukozala umien biotzetara eldu eta onen jaube egiiteko.

Txikija nintzan baña ondo gomutaten naiz atzefira juateko agufu genduzuzanian zelako negafak egin ziran itxaz eftzeko ikastolatxuban, baña... gitxijagorako ete zan? Ez, bada agufka eguana, geu geure efi eta euzkotaf gustijen Abefi bakafa, mafe-mafe ebazan irakasle on bat zan, bestela ikustia baño ez dago orain be, zelan agefiu daben "Irakufi Mafe'n".

Idastitxu au gurazo gustijak erosi biaf leuke euren seme-alabatxuentzat, bada irakurgai gustiz politak daukoz eta oso argi umien adimenentzat. ¿Zelan ez egon argi izanik bere egilea Azpeitia anderea? Idazti au eskuratuten daben umetxubak ezin itxi ixango dau dana irakufi afte.

NORBAIT.

E. A.-B.

ARETZA (VILLARC)

DEYA

Bizkai'ko Euzko-Jel-Batzako antolapen befiko XIII'gfen idazpuruko 75'ko idazkia ta 10'gfen aginduba betetzeko dei-egiien yate Areatza'ko Euzko-Jel-Adefkide gustijai batzafera Batoki'ko aretuan datofen igandeko 2'n goxeko amaiketan.

Afen ziatz etofi danok.

URI-BURU-BATZAŘA.

Uafa.—Euzko-Alderdi Jeltzalia, deritxo geure oni.

LEGAZPIA

¡ESNATU GIZONAK, ESNATU!—Lengoak gutxi ba'dira ara zein izpaf mingafia dakafkigun gaufko izpafingiak, España'ko "gobernubak" amaika txakufkeritik egin digunetako bat da. Datofen bezela jafiko degu. Ona emen:

"Pertenecen a la propiedad pública nacional (España alegia) los centros de toda clase y sus edificios anexos, los palacios episcopales y casa rectorales, con sus huertas anexas o no, Seminarios, Monasterios y demás edificaciones destinadas al servicio del culto católico o a sus ministros.

La misma condición tendrán los muebles, ornamentos, imágenes, cuadros, vasos, telas y demás objetos de esta clase instalados en aquéllos y destinados expresamente y permanentemente al culto católico, a su esplendor o a las necesitades relacionadas directamente con él".

Au izpaf madarikatuba. Ziñestu ete-dezakegu au danau egia danik? Legazpi'ko eleizak, Txaunburu (Vicario)-etxea, eleizako txauneskin (órganos) eta gañontzeko jun-etofi gustiak España'k bereganatu ditunik Eleizeanak ber-beranak izan-eta? España mundu'ko abefirik kistafena, España-zale oyek esaten dutenez, dalako egin ete-du ori?

¡A! España-alderantz begira dabiltzan oyek, euzkoak izaki, onera, bertara, Euzkadi'ra begiratuko ba'luteke ezkenduke gauf onelako ipaf zitalik jaftzen astirik galduko ¡Ez orixe!

Eleiza'ri lapufeta ori egiteko benetan zikiña izan beaf du batek, zikiña.

Astirik ezkendukela galduko diot, Euzkadi'ko eskeftaf deritzayenak, ain kirtenak ezta ere ain gofototsubak ez diralako. Ez egin bafierik irakufle, berialaxe esango dizut zergatia-ta.

Ba dakizute, orain oraindik ointsu Bilbao'ko Udalak ango Plaza de Belgica deritzayon enparantzean arkitzen dan Josu -Biotza'ren irudia andik kentzeko erabaki zula. Bada asmo ura España-zale eskeftafak Udaleratu zutenean Euzko-Ekintza'ko abeftzaleak txaftxat bota zuten. Baña asmo ura ala ta gustiz ere, españataf askotxo izaki nunbait ango ziñegotzien (kontzejalak) aftean-eta, ontzat aftu zuten.

Orain Euzko-Alderdi-Jeltzale'ko abeftzaleak eta Bilbao'k izan ditun Endore (alkate) batzuk eskatu dute Josu'ren Biotz ori botatzea atzeratu egin beaf dala au dalako ta bestea dalako, eta (eztakit nun irakufiko nun baña ames egin ez dedana ba'dakit) Euzko-Ekintza'ko abeftzaleak alde atera dira bi ez bestek. Eta bi oek ez batera ta ez bestera gelditu dira.

Au ez dala beste eskeftaf España-zale oyek baño buruzago jokatzea? ¡Nai luke!

Euzkoak zentzun geixeago bai-degu, eta kistaf-ikasbidea gogotsu ikasiak batez ere.

¡¡Euzkadi ludiko abefirik kistafena ezpai'degu ere... legazpiafak abeftzaletu zaitezte!!

ZAŘ-ZALE

AZPEITIA

EUZKEL-IZENAK.—"Komunsoro" basetxeko Aranguren'daf Ander eta Bereziartua'taf Inese senaf-emazte abeftzaleak izan duten lenengo semetxuari Jon Joseba euzkel-izen politak ezafi dizkiote.

"Antzi-bafena,,'ko Bereziartua'taf Mikel Iñaki eta Muñoa'taf Pantzeske'k izan duten alabatxuari Miren Eustake. Zorionak aita-amai.

EUZKO-ANTZERKIAK. — Iragafiita bezela larunbatez eta igandez euzko-antzefki politak euki ginduzen Luminor'ko aretuan. Euzko-Etxea'kuak antzezlari. Lenengoz aurkesten ziran. "Itziartxo" eta "Amets goxuak" antzefkiak. Bi egunetan gurenda aundia lortu zuten. Notintza ere asko. Katolikuen batasuna oyuka eskatzen duten oyek alegiñak egin-afen notiñik, beretakorik beintzat ez juateko. Itzaldi bat gertau bai igandean zuten ordu berean. Ala ere alpefik. Abeftzale ta ez diranak antzefkiak ikustera etofita azkoitiaf asko agurtu giñuzen. "Olkiak ordaintzea" etofita noski. Ez da ala? Antzefkiratu ziran guziai eskefik biozkofenak dagizkiogu. Antzezlariai befiz zorion bero-gartsuenak.

NASTUAN.—Igandeari zegokion Garisuna'ko itzaldia Egibar Josulagunak egin zuan. Oso ederki. Ostetza aundia entzule zalarik.

Koldobikatafak Arteskari-batza befitu dute. Ona nortzuk osatzen duten: Lendakaria: Egaña'taf Iñaki; ordeko, Alberdi 'taf Kerman; idazkari, Bikendi'taf Balendin; ordeko, Madrazo'taf Paskal; txindizai, Etxaniz'taf Toma; ordeko, Zubiaufe 'taf Pidel; batzafkide, Otaegi'taf Bifof; Ibarzabal'daf Kepa, Agife'taf Koldobika ta Elizburu'taf Joseba; zenbatzale, Aizpurua'taf Ezekel. Zorionak guzioi eta ekin gogof.

Datofen igandean Azkoitia'ko Olimpia -antzokian izango dan antzefkizunera juateko emengo abeftzalien artean gogo bizia dago. Azkoitiaf Batzokikoak antzeslari. Iru ataldun "Euzko-gogua" Azpeitiafak igandez Azkoitia'ra. Azkoitiaf abeftzaleak eskeñi digun laguntza eskertu eta anai-artako adizkidetasun lokafiak sendoagotutzera.

KIROL.

SANTANDER'TIK

EUZKEL-IXENA. — Gure lagun eta abeftzale ona dan Zamaloa'taf Peli'n emazteak, semetxu bat ixan dau, eta ugutzan Peli Mirena Iñaki euzkel-ixen politza ezafi dautse.

Zorion agufa guraso ta aita-ama bitxiai.

Baita bere jakin dot, gure lagun on dan Barbier'taf Jagoba'ren emazteak ixan dauela semetxu bat.

Zorijonak guraso ta aitama bitsuboi.

GUDARITZARA.—Emen dagoz "Gomuzio,,'tik (Galdakano) etofiita, Artetxe'taf Peliken eta Garai'taf Efoka. Egia gudu-alegiñak abeftzale onak lez, laguntzeko biar dauen gauza gustietan, ez lafiiu ba "Basakiña", emetik juango dira euzkotaf abeftzaletasunian irakiten da.

ABEŘI'TIK. — Etofi yaku dana gure lagun ona eta abeftzale zintzuenetakua Mugerza'taf Gotzon, lan batzuen ondorez egun batzuetarako Zelako poza emoten dausku gure Mugerza'k, bafiketaldi gozuak ixaten dogu beraz.

PELOTA-TXAPELKETA — Juan zan igandian, igandero lez, gure mutilak jokatu eben emengo pelota-lekuan, ikusteko jokaldia. Datofen iganderako asi dira gertaketan eskuzko pelota-txapelketak. Euzkotaf artian zaletasun bizia dago jokaldiok ikusteko.

"ABELETXERI". — Ondo dakigu Prieto "sosolistuak" geure Abefiaren kalterako eztauela egiten ezer berez, azpikeri batzuk esan ezik. ¿Zeñek eztau ikusten Prieto "cuentista" aundi ibat dala? ¿Zeñek eztau ikusten auntzak lez egiten dauela mendi aldera... bere "Txinda,,'ko mendi aldera? Baña mutilak, ¿zer itxaron euzkotafak asturiano bategandik?

Okefenatatik okefena da, eztozula lortu gure Batzokija. Emen bizigaran euzkotafak daku Batzokija, baña eztauku etxerik nun batu; egun baten batzen gara leku baten eta beste egun baten befiz beste baten. Alan ba etortzen diran euzkotafak, ezin gabez lortu, ez Batzokijari ez guri be. ¿Zelan dan ori? Ba jakingo dozu laister. Oin urte batetik ona gabiltz etxebaten bila, eta "Urte-baten" eztu lortu Batzokirako leku on bat. Emengo gentiak ezin dau entzun etxia eztosku gura itxi. Baña alan geyau ezin gara egon, laistef baño laistef erei bier dogu gure Batzokija, naiz ixan gobernadorien etxian.

Emen ezta "Colonia Vasca,,'rik, Batzokijaz zatiituta itxi dogu "Colonia" a. Oin gu gara emen jaunak.

GEXO.—Makal-samaf dabil Sanjuan' daf Jon. Laister osatzea opa diogu lan gogofak egiiteko gure Abefi maitiaren ondoren!

OTZATEGITXU'KO JON.

Agirre'tar Joseba Mirena'ren aldez, Tolosa'n

¿Zer ikusi neban? ¡Poz-negafez egona naiz! ¿Zer ikusi neban? ¡Lagun maitasuna! ¡Maitasun anaikofa!

Ikusi nitun, bere bizitzan lagun ziranak, il-ondorean ere beregotik aldendu nai ezik.

"Bizi zanian ezin afkitu (ziyon "Orixe,,'k) il-ondorean ezin aldendu,"

"Lizardi" ezda il, bada bere gogoa, lagunai ezkefak ¡bizi-da!

Beñere ez nuan oldoztuko lagun maitasuna ortaraño iristen zanik; baña, ikusi ondorean ulertu det ¡neufigabia dala!

"Ze ikusten dabe nere begiyok, au danau dakust galduta" ziyon Sabin maitiak, abefiyari begiratuaz.

"Ze ikusten dabe neure begiyok, anai maitasuna ez bada? diñot nik, igandekua ikusita.

An arkitzen giñan oste piloari Labayen jaunak esan zigon "ez egin negaf, alaitu zaizte".

Alaitu gaitian, bai; alaitu gaitian, bada, "Lizardi" bixi-da. "Bere olerkiyak emen ditugu" (ziyon edefki "Lauaxeta,,'k). ¡Zer eska genzake, bere olerkiyak ez-bada? Bertan azaltzen da, bere izakera. Irakufi ditzagun bere olefkiyak; bere lumak, bere eskuak, bere adimenaz egiñak daude; ¡bere izakera da! Artu egizuz bere olefkiyak, berakin egon, nai badezu.

Irakufi ditzagun bere olefkiyak, batez -ere, guk, gazteok. Irakufiaz jafai deyogun, berak utzi digun ikasbideari. Fkin beñere baño sutsuago, abefiyaren alde. Maitatu gaitian danok, biyar, gurutz bidun ikufin pean, danok olefkari biurtuak, gure Euzkadi maiteari biotzetik abestu dayogun.

Nere biotz jabia
zu bakafik zara.
Pozik zugatik
emongo nuke
neure zañetako odola.

Bitartian, ("Aitzol,,'ak ziyon bezela) otoi egin "Lizardi" alde". Aguf "Lizardi" "egun aundi-aft»"

ZALOÑA.

EUZKELTZALEAK

IV EUZKO - OLERKI JAYA, UŘETXUAN IPAŘAGIŘE OLERKARIAREN OMENEZ. 1933'GO UZTALIAN OLERKI-GUDUA

LENENGO SALA. — Opazko saria: zilafezko aritz-abafa, lafu landuzko azpikiz. Zernai gayezko ta ariko olerkiak.

BIGAŘEN SALA.—Saria: 500 laufleko.

"Epika" deritzan ariko poema bat. Gava, naiz edestizkoa, naiz alegizkoa; edo ta, euzko-seme ospetsu baten egintzak eta deigafiago, obe.

Efi xearen berezko edesmena ta elertsena geyagofu-asofek efitar-antzean ta jutua bear du, naiz bertsolariena baño jantzixeago izan; ta, berok oi duten eraz, abesgamoz jafia baita sail au.

Beraz, poemafia, kantagafia. Ez bedi izan luzeagia, baña bai, abestuz, ogei bat miñutu bete alakoa.

IRUGAŘEN SALA.—Lau sari: 100, 75, 50 ta 25 laufleko.

Efi-olerki-zortak. Bear beafeko da, olefki oyek efitaf gofi izatea: beraz, orain ala noizpait, efiak erabiliak.

Entzun bezelaxe idatzi bitez, itz bakafik ere aldatu gabe, erderakeri zakafena balitz ere.

Adirazi bedi zein urietan jaso dan, ta noren ezpañetatik.

Olerki oyek gai askotarikoak ditezke. Ibiltarle-abestiak (esate baterako, Olentzaro, Urtebefi, Deun Agate, Deun Nikola'takoak...); efi-jayetakoak (naiz dantza, naiz su; aizkolketa, ala sarijoko...); lanbidezkoak (artzaintza dala, egurketa, arilketa, arta-jofa, afaintza, t. a.): yainkotiak (Ama Neskutzari Deunei, efiko zaindariari, gurutze-bidea...); ifizkoak; alegiak; eta abar, eta abar.

"Bertso befiak" ere artuko dira.

Amafeko sortarik onenari lenengo saria.

Bostekoari, bigafena, Irukoari, irugafena. Bakarkakorik onenari, laugafena.

Sail onen elburua, efi-olefkiak albait ugarien biltzea, da.

BALDINTZAK.—I: Epai-mayak sarirako olefkien adi-efeztasuna, pontuan edukiko du. Olefkariak argi adierazten sayatu bitez, ba.

II: Iru saleko lanak garagafilaren 30 'gn. bitartean biali-beafak dira.

ZUZENBIDEA: Señor secretario de Euzkeltaleak. Certamen Poético. Sociedad de Estudios Vascos. Palacio de la Diputación. DONOSTIA.

IV DIA DE LA POESIA VASCA, EN VILLARREAL DE URRETXUA EN HONOR DEL BARDO IPARRAGIRRE. JULIO DE 1933

CERTAMEN POLITICO

CLASIFICACION I.—Premio de Honor.—Ramo de roble, en plata, sobre estuche de cuero.

Poesía de cualquier género literario y asunto libre.

CLASIFICACION II.—Premio de 500 pesetas.

Pequeño poema de carácter épico sobre hechos históricos, lejendariós o de personajes vascos.

Pueden utilizarse como asunto hechos conocidos y divulgados en el pueblo.

La finalidad de esta clasificación no es sino la de despertar en el pueblo un sentimiento poético de cierta altura. Procúrece, por lo tanto, que sean fácilmente adoptables a las melodías de los bertsolaris, aunque de inspiración más cuidada que la de éstos, desde luego.

Aunque breve ha de tener una extensión razonable.

CLASIFICACION III. — Cuatro premios de 100, 75, 50 y 25 pesetas.

Colección de poesías populares. Es "indispensable" que estas poesías sean "rigurosamente" populares, que las use, o que las haya usado antes el pueblo, "sin cambiar una sola palabra", por muy erdérica que sea. Hágase constar el pueblo y la persona de quien se han recogido.

Estas poesías pueden ser de las llamadas de ronda, v. gr.: Olentzero, Urtezar, Urteberri, Santa Agueda, San Nicolás, etcétera...; de fiestas populares, como de bailes, hogueras, apuestas de hachas y carneros, leñadores, hilanderas, pescadores, etcétera...; religiosas, v. gr.: viacrucis, a la Virgen, a los santos, al patrón del pueblo; satíricas, fábulas, etc.

También podrán enviarse "bertso-berriak".

A la mejor colección, de más de diez poesías se otorgará el primer premio.

El segundo a la colección de cinco poesías.

El tercero a la de tres, y el cuarto a una sola.

La finalidad de este concurso es la de ir haciendo una gran colección de poesías populares. Obra eminentemente patriótica.

CONDICIONES. — Primera: Las poesías de las tres clasificaciones deberán remitirse para el 30 de junio.

Segunda.—El jurado, como mérito, tendrá en cuenta la perfecta y fácil inteligibilidad de la poesía. Por lo que se encarece esta cualidad de comprensión a los poetas.

DIRECCION: Señor secretario de "Euskeltzaleak", Certamen Poético.—Sociedad de Estudios Vascos. Palacio de la Diputación. DONOSTIA.

Euzkotar umien aldez

BURNIA

"Neri atsegin zoritan burnia Bizkai'koa da."
(Shakespeare.)

Ludiko edozein lekutan bizkaitafa zerala esaten ba'dezu, "burni efikoa zera" erantzungo dizute.

Euzkadi'n burni asko dala nun nai dakite, ta geu, euzkotafak izanik, burniari dagokiozan gauzak yakiiera bearturik gaude, batez ere zuek, bizkaitaf umetxuok.

Burniatzaz gauza efaz batzuek emen esango dizkitzutet.

Burni-afia, Bizkai'ko lufak, batez ere Somofostro deritxon luf aldiak ugari ematen du.

Burni utzik ez du ordea ematen, lufakin, ikatzakin, eta beste gai batuekin nastian baizik, eta lenengo lana burnia beste gayetatik aldendutzea izaten da.

"Labe garayak" izena duten ola aundietan egiten da au.

Barakaldo deritxon Bizkai'ko urian daude onelako ola aundiak.

Bilbao'n iñoiz izan ba'zerate, ikusiko zenduten gabaz, Bilbao'tik Barakaldo'rantz begiratu ezkero ortzea su margoaz gofitu ta nola ikusten dau.

Uri osoa efetzen dagoala iruditzen zayo lenengotan ikusten duanari.

Argitasun ori Sestao ta Barakaldo'ko burni-olak ematen dute.

Bufni-afia suaz urtuta burnia ateratzen dute sutegi edo labe aundia oyetan.

Tofe aundi batzuen antzekoak dira labe garai oyek, surik etzayote iñoiz itzaltzen, eta gau ta egun dagite lana.

Kia ta sutxinpertak befiz, garaitasun aundian gorantz bialtzen dituzte.

Burni-afia suagaz berotzen dalarik, burnia urtutzen da, burni-afiak dauzkan beste gauzetatik aldendurik, bere astuntasunaz labearen sabelera eroritzen da, ta azpian dagon zulo batetik kanpora erteten du susko ibai baten antzera.

Ostutzen danian burnia egiña dago.

Baña burni au ikatzakin naztua dago oraindik, axkaf puskatzen da.

Ala ere gogofasun aundia biaf ez duten gauzetarako erabili leike.

Benetako burni-gozo - gogofa egiteko, burniak berekin daukan ikatza efe beaf zayo sutegian, suari aize azkogaz putz -egiñik.

Ezin esan leike, gizonak burnitik ateratzen dituan onurak, burniaz egiten diran gauzak.

Burnia urtutzen asmatu artean atzeraiua bizi izan zan gizadia, afizko aizto, ta aizkorak beste lan tresnarik gabe.

Ugaria da burni aria ludian, ugaria da gure Euzkadi'n, batez ere Bizkaya'n; baña oraindik ez dala naikoa esan liteke ola, lantegi, lankai, bultzi, burni-bide, etxe ta leku gustietan erabilten degun burnia ikusirik.

Burnia ain gogofa dan afen, landutzen efaza da berotu eskero.

Otzik ezin liteke landu, baña beaf dan beste berutu ezkero nai dan bezela landu leike.

Edozein sutegitan ikusiko zenduten, zelan burni goritua nai dan bezela luzatu, zapaldu, biufitu, okertu, ebaki eta abaf egiten dan.

Burniaz, ofi meyak edo txapak eta burni-ariak edo alanbriak ere egiten dira.

Burni ofiaz ainbeste gauza egiten dira: bultzien labeak, lufun-pertzak, itxas-ontzi aundiak eta abaf.

Burniofi meya estañoaz estalita, erderaz "hoja de lata" esaten zayon gaya egiten da: ainbeste gauzetan erabiltzen dana.

Zapaltzen dan bezelaxe burnia luzatu, estutu, ofitu ta aritu leike ta onela egiten dira burni-bidietako efalak, giltzeak, eta abek baño ere estu, luze ta meyago diran burni-ari edo alanbreak.

Galtzairoa ikatzdun burniaz egiten da.

Burnia baño gogofagoa ta efazago puskatzen dana izater da galtzairoa.

Surtan goritu arteraño burnia berotutakuan, uretan edo oriotan sartuaz egiten da gatzairoa.

Aizkora, guraize, ofatz, jóstofatz, aizto, lankai geyenak galtzairozkoak izaten dira, baita kañoi ta beste guda izkiluen zati nagusienak ere.

AŘITOKIETA.

BIOTZ-BEGIETAN

Libro de poesías
con traducción castellana

Xabier de Lizardi
(Prólogo de «Orixe»)

T. S. H.

AUDICIONES INTERESANTES PARA HOY, 29 DE MARZO

Conciertos sinfónicos

A las 7,30, Estrasburgo. — "Las Bienaventuranzas". (Franck).

A las ocho, Radio París. Bruselas número 2.—Concierto Lamoureux.

Conciertos vocales e instrumentales

A las 6,25, Praga.—Banda militar.

A las 6,30, Stuttgart.

A las siete, Berlín-Leipzig.

A las 7,40, Huicen.

A las 8,30, Francfort.—Música religiosa de Brahms.

A las 9,20, Stuttgart-Breslau.—Serenata.

A las 9,30, Heilsberg.—Conmemoracion de Hugo Wolf.

A las 9,45, Budapest.—Orquesta ligera.

Operas

A las 7,30, Torre Eiffel. — "Fausto" (Berlioz).

A las 7,35, Suiza alemana.—Dos extractos de óperas cortas de Pergolesi.

A las 7,45, Roma.—Con la Opera.

Música de Cámara

A las 5,30, Bruselas núm. 1.—Sonata.

A las 7,35, Bari.

Recitales

A las 6,30, Hamburgo. — Canciones de Weber con guitarra.

A las siete, Bruselas núm. 2.—Música religiosa.

A las siete, Bucarest.—Violoncelo, piano, violín.

A las siete, Suiza romana.—Clarinete.

A las 10,40, Hilversum.—Organo.

Guruzpidia

Mazelagan'dar Pi

II

(Boskafen geraldija)

Jauna, gexuak osatu eta
ilak befpiztu zenduzan.
Ura ardautu ta ogijan ugalda
gixonen aldez beinguan;
¿Ta iñor eztatof eruan dadin
gurutz lodi oi lepuan?
Bai-datof Simon Kirenetafa
indafez eta alogeran;
bafiz neu natof guruzpidii
arinduteko pozean,
neke-biafak afturik gogoi
bixitzako gurutzean.

(Seigafen geraldija)

Gaizkin-aftian zapi zurijai
Beronike efukitsuba,
garbitzen dabil gure Jaunare
odolduriko mosuba.
Bere ereduban neuk, be, gofurii
koldafen lotsa gaiztua,
egin nengike edonun beti
egipen on bidezkua.
Ekandu txafak galazo, bafa
birau kaltegafizkua,
erakutsirik egiz nazala
kisto'ren alderdikua.

(Saspigafen geraldija)

Afen, gotzonak efukiituta
jatsi zadiz egaz-bera,
bigafen aldi jausi dalako
zuben Jaubia lufera;
ta donokiiik gixonen zofi
jatsi-afen ordaintzera,
ostikurtika ta makilaka
eurek damotse eskaf-txafa.
Deungetasun au iraingetu, ba,
leyaka nekal, tximistez;
bestera Josu'k efukiituta
azketsi, diño, bijotzez.

Zortzigafen geraldija)

Jaunak negafez ikusten diiu
jafayan efiko andrak
diñotse efukiz; Obenakafik
biaf dirala negafak.
Adirazorik bere oñazen
efuba eurek daukela.
Donokija itxi ta gaiztokija
eurak zabaldu ebela;
beraz, gofotau biaf dirala
ekandu ta griña txafak,
bafa azkespena loftzeko egin
nekaldi-egipen onak.

(Bederatzigafen geraldija)

Irugafenez Josu laztana
jausirik dago lufean,
gixonak jausten bai diralako
safiian oben lafijan.
Garbai naz jauna, efuki-afen
azketsi neure obenak,
auferantzean, Jainkua lagun,
enau gofuko gaizkiñak;
beraz ba'letof zitzaldija ta
su ta gaf griña gaiztua,
jafki egiñik eztot ausiko
egundo asmo sendua.

(Dafaike.)

Bedoña 'tar Jokin Aba

"Loramendi,,'ren
il-ots kampaya.
Euzkadizear
ba'doya,
ta eriotz izpai
itun lafisk
eztaldu Euzkadi
maitia.

Udabefiko
goiralde baten,
egaf gotzonak
du irten;
ta zeru aldera,
bideak zuzen
ikusi omen
dute yuaten.

Ludian garbi
bizitu zana;
emengo loyaz
kutsutu etzana;
aingeru bat lez
izandu zana,
ortze urdiñera
bai da eramana.

Eriotza'ren
epai ixilak,
mututen ditu
olefkariak.
Zauri mingotsak
ditu idikiak,
euzkel-elerti
befi, gastiak.

Negaf notiñak
Lizardi'gatik,
ixil baño
lenagotik,
samintzen gaitu
bef eriotzak
gaur-ere euzko
semiak.

Yainko maitia,
otoi dagizut,
zure altzoan
artu eitzazu,
ta oen ordeko
olerkariak,
damaizkiguzu
gazte-ikasiak.

ZUBI-AUŘE.

Artua eta babia txikitutzeko makiñak;
Txomin Olano'k
Saltzen ditu, merke
Plaza de las Escuelas, 10 g'n - Donostia

Aranburu'tar R.
AZAL ETA TXIZ-BIDIAK
Fueros, 5, 3. DONOSTIA

MARTIKORENA
Begiyetako gaixoen sendagilea
Garibay, 13 bis, 2.° - DONOSTIA